

## LANTSU NABI

*Baserrian beti dugu zeri oratu. Ezin, beraz, besoak gurutzaturik, egon goxoan, patxara aunditan inñondik egon. Udaldian bereziki zeregin geiago datorkigu eskura. Eta nik aueri erantzun bear; ez naiz, ala ere, kexaz. Emen dut nere Jone maitea, lanerako eredu bikain, eta neretzat gidari ta ziri-sartzaille trebe.*

**Doñu:** «Loriak udan...».

Gaur al duzuna ez utz biarko,  
gurean bai lanik aski:  
etxe ta kanpo eskua zertan  
ezarri ba dut ziurki;  
korta, soro ta baso trinkoan  
—nere gaiñ ditut osoki—,  
naia nola dau alako lana,  
ba dut non jardun nasaiki.

Bagilla duzu aro biguna,  
ezin naiz egon geldirik,  
landak belarrez dauzkat gaiñezka,  
arto-saillak guri-miñik.  
Bota (1) berritan zugaitz biztuak,  
aiotza (2) noiz ezarriko nik,  
naikoa kalte bai lekarkide  
pipil ta lore larregik.

Belar guria ekarten diet  
txekor ta beiai oparo;  
bai gogoz jaten dutela auek  
otrz-ots egiñez gozaro!

---

(1) Kimu.

(2) Matxetea.

Ordura, baiña, bear dut izan:  
garai onetan, unero,  
zaindu ezikan belar geiegi  
gaizkia dute zearo.

Barrua puztu ein ez dakien  
—gutziz baita kaltegarri  
eta sabelak aizetik jagon,  
goizez damakiet sarri  
belar idorrez osaturiko  
bazka laket zalegarri.  
Txekorrak gizen, esnetsu beiak,  
ola dauzkat ikusgarri.

Zementuz ondo daukate lurra,  
aspalditxo neuk jarria;  
si maur, ongarrri, loiz daukat garbi  
abelgorrien azpia.  
Kortak ardura gabe eukitzea  
bai dala tamalgarria!  
Estalpe loiak salatzen dizu  
nekazari arlotia.

Beien oea alik onena  
jauskeraz daukat egiña;  
beuron luzeera baiñon asago (3)  
garnu-erreten berdiña,  
kortatik kanpo daukadan pozu  
batera doa ariña  
barazkientzat gero eder dan  
txiz-ixurizko ur zikiña.

Ta ganaduak —ez da gezurra—  
gisa orretan jagonik,  
beti dituzu osasun aundiz  
eta ausnarrean gozorik.

---

(3) Urrin.

Illea legun, ez kizkurtua,  
alez askea baterik,  
emango dizu euskal ukulluk  
zisku hereka dirutik.

Aska betea, OC sikua,  
or dauka beiak dirua;  
bide ortatik edonork ere  
gizenduko du ziskua.  
Nik edo ortan nai nuke jarrai  
beterik nere ukullua,  
etxalde eder au izan dakidan  
neretarren eredua.

## EURI OSTEAN

*Kalean bizi diran oietariko askok ez do euririk nai izaten; baseritarrak, bai; udan batez ere, labore saillak blei-blei dauzkagunean „goiari erreguka ari ni gera curia egin dezan. Baiña, ez gutxitan, trumoi la oiñaztu, iskanbil irakaragarriak ere sortu oi dira gure inguruan, itxarnpenetan dauzkagun uzta-soro, baratze, igali-zugaitz eta bazterrak osoan ondatzen dituztela. Gure ondamena sarri! Giza-sumeok ez bait daukago egurats-indarrakin nai duguna egiterik.*

**Doiñu:** «Mutil gaztia.,,».

Laru-ikaraz dakust lugiña,  
ezpaitu beti poz-atsegiña;  
udako euria  
—iraunkor, joria-  
ez dugu sekulan arbuigarria.